[b] BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
579. zkia.
XIV. urtea
2006ko uztailaren 7a



Mari Arrillaga, Arane I.a, raketista izandakoa

# «Bartzelonako frontoiak bete egiten ziren gu ikusteko»

[ GEHIGARRIA ] IDAZMAKINAK 06 • [ KULTURA ] ARGENTINAKO DOINUAK

# "Gomendatzen dizut..."

## saria

Zure oporrak gomendatu nahi dizkiguzu?
Kontaiguzu zein den zure herri, hondartza, mendi, ostatu edo dena delako kuttuna eta sari bat irabaziko duzu!







Bete ezazu www.elgoibar.org helbidean dagoen fitxa eta bidali elg.gzerbitzua@terra.es helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.
Partehartzaile guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!

- 17 urtera artekoentzat: kamera digital bat.
- 18 urtetik gorakoentzat: 2 pertsonentzako asteburuko egonaldia.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: urriak 17.
ZOZKETA: urriak 20.

gazte informazioa
Elgoibarko Gazte Bulegoa
Kultur Etxea, Nafarroa plaza
Tel: 943 74 14 61
elg.gzerbitzua@terra.es
Astelehenetik ostiralera 16:00-19:00
(asteazkena izan ezik)



TEMPUR · laxy · Mediterraneo · sonpura · OLDtex · MASH

## %20ko beherapenak




Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

# LAGUNAK

**24** hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



# ZOZOAK BELEARI...



**IMANOL LARRAÑAGA**

Espainia guk uste baino hurrerago dago, Uxue. *Goenkale* ere ia bi orduz atzeratu zuten Espainiako selekzioak jokatzen zuelako. ETBko programarik distiratsuena, hamaikako ona izan arren, ez zen ausartu Espainiaren kontra jokatzera. Eta, bada ez bada ere, Raulek eta konpainiak etxerako bidea hartu ondoren irten ziren zelaira. Berandu.

Harritu egin ninduen erabakiak. Baina, txoritxoa zaintzen dutenek badakite futbolak Maria Luisak baino pisu handiagoa duela. Badakite euskaldunoi ere interesatzen zaigula Espainiako selekzioa, hau onartzea askori kosta egiten bazaio ere. Eta, badakizu, audientzia koherentziaren aurretik jartzen da gehienetan telebistan.

Aurreko batean, lagun batek esan zidan ez zuela ulertzen zelan egon daitekeen hainbeste euskaldun Espainiako selekziori begira. Eta, gainera, bere onetik irtenda zegoen Espainiaren alde zeudelako asko (abertzaleak ere bai, tartean). Nire lagunari gustatu ala ez, euskaldun asko eta asko egon ginen Espainiaren eta Frantziaren arteko partida ikusten. Nik ere gustura ikusi nuen. Eta, egiari zor, berdin zitzaidan batak zein besteak irabazi.

Aldamenekoen kontra baino, gurearen alde nago. Eta gurea jasotzeko ez dago besteena bota beharrik. Espainiako eta Euskal Herriko selekzioak aurrez aurre ikusi nahiko nituzke lau urte barru. Hori bai izango litzatekeela mundiala!

**[ «Aldamenekoen kontra baino, gurearen alde nago» ]**

IMANOL

**[ «Nik bai, nik ospatu egin nuen Espainiaren porrota» ]**

UXUE

**UXUE ALBERDI**

Mundiala? Mundiala izango litzatekeela? Baita zera ere!

Aitortu egingo dizut, Txino: nik bai, nik ospatu egin nuen Espainiaren porrota. Irribarre txiki batek egin zidan ihes.

Norberak bere bengantza propioak ditu. Poztu egin nintzen. Aparra bezala gora zihoan harrotasun espainolista rojigualda lurrera eroritako txanpan botila bezala hustu zelako poztu nintzen. Azken batean, zer da mundiala galtza motxekin mozorrotutako estatuen arteko gerra ez bada? Alde batean estatu bateko soldaduak eta parez pare kontrarioak, nor bere mugak zaintzen. Nor bere harrotasunarekin. *No pasaran...* Gero, gurea omen da nazionalismoa. Inguruan herri itsua, fiuka eta bibaka, norbere garaipenak eta besteen zoritxarrak ospatzen.

Galdetu Bushi nola ospatzen dituen gerra-garaipenak bandera ondo astinduz, eskua bihotzean ereserkia kantatuz.

Barkatu, baina nik ez dut horren parte izan nahi. Noski euskal selekzioaren alde nagoela, baina ez joko horretan sartzeko. Bandera saltsa horrek tripako mina jartzen dit.

Giza inozokeria noraino iris daitekeen, horixe erakutsi dit niri mundialak.

Eta Goenkale bi ordu atzeratu zutela? Zer nahi duzu esatea horri buruz, Txino? Badakigu ETBko txoritxoak noren ahotik egiten duen pio-pio.

---

“ FUTBOLA HEDABIDEEK OSO ONDO KONTATURIKO GEZURRA IZATEN HASIA DA ”

Jorge Valdano

## Esker ona

Eskerrikasko! Nire bizitzan askotan erabili eta asko maite izan dudan hitza da. Hitz luzea, hitz indartsua, soinu politekoa, esan-erraza, xalaua, sakona, goxoa... baliotsua! Beti sinistu izan dut keinu txikietan, beraiek egiten baitituzte handi egoerak. Eta gaur, ekainak 21, lotara etorri naizenean bere benetako esanahiaz eta handitasunaz ohartu naiz. Uda hasten den honetan, hainbeste, hainbeste ditut emateko, ez zaizkidala kabitu ere egiten. Eta guztiak paperera husten ez ditudan bitartean, uste dut, ez naizela loaren besoetan erortzeko kapaz izango.

Gaueko ordu txiki hauetako isiltasunaren eskutik, lo kantak bailira, honela esan nahi diet: "ondoan gauero ondoloin esaten didanari (ez aldatu); maitekiro eta garrantzirik eman gabe, txirri-txirri beti ondoan dauden odoleko nahiz bihotzeko guraso eta anai-arrebei; nire ortzimuga ilusioz betetzen duten alabatxoei; orain dela hiru urtetik hona, irribarre batekin bereak eskaintzen dizkidan txikiari; beti edozertarako prest dauden senideei, bene-benetako lagunei (mua!); zatitxoka-zatitxoka, egunez-egun, hainbat eszenatoki desberdinetan egindako ezinbesteko ezagun horiei; zebrabidean pasatzen utzi didanari; gaur alta eman didan sendagileari; emozioz bete nauten hainbat egoerei; pena uxatu asmoz, bere gaztaroko istorioak kontatu dizkidan amonatxoari; bere irribarrea eskaini didan horri... eta bereziki eskaini nahi nioke esaten erakutsi zidanari! Ez delako munduan hau egitea baino satisfazio handiagorik. Mila esker denoi guztiagatik! Praktikatu, dohainik da!

**I.A.**

## Jaunak/andreak:

Idatzi honen bidez, zuengana zuzentzen gara, Elgoibarko anbulatorioko ginekologia zerbitzuaren funtzionamendu eskasa dela-eta, gure kexarik sendoena adierazteko. Ez da gaur goizekoa emakume elgoibartarrok zerbitzu honen inguruan dugun ezinegona. 2003ko azaroaren 13an, honen antz handia zuen beste idatzi bat aurkeztu genion Osakidetzari, herriko emakume askok eta askok sinatuta, eta Biluzik Sexologia Zerbitzuaren eta Haizea Herriko Emakume Taldearen babesarekin. Baina egia esan, ez da inolako hobekuntzarik egon. Aitzitik, egoera txarrera doa. Eta berriz ere, salaketa publikoa egin beharrean aurkitzen gara:

- Erabat beharrezkoa eta premia handikoa da ginekologoen kontsulta egunak gehitzea. Astean bi eguneko zerbitzua, zalantzarik gabe, gutxi da. Errebisioak astean bitan egiten dituzte, hain zuzen ere, eguerdiko 12:00etatik 13:30 bitartean. Egun eta ordu horiek daude jarrita Elgoibarko eta Mendaroko emakume guztien azterketa guztiak egiteko. Lotsagarria da Erakundeetako arduradunek prebentzioaren beharraz hitz egitea, eta ondoren, otsailean txanda eskatu eta hori abendurako ematea. Beraz, honako hau eskatzen dugu: Ginekologia zerbitzua egun gehiagotan egon dadila martxan, horrela, eskabide guztiei aurre egin ahal izan diezaieten

- Behin eta berriz, etenik gabeko Ginekologia zerbitzua eskatzen dugu. Hau da, ginekologoak, edozein arrazoi dela medio, zerbitzuan egoterik ez badu, bere lanpostua, berehala, beste profesionalen batek bete dezala. Emaginek artatu behar dituzte larrialdiak, baina ezin dute errezetarik egin; horretarako, normala den bezala, medikuaren baimena behar dute-eta. Baina hori horrela izanik, zergatik uzten dituzte zeregin horiek emaginen eskutan?

Zerbitzua hain eskasa izanik, ezinezkoa da Elgoibarko anbulatorioan prebentzio lana egitea. Era berean, lotsagarria da emakume elgoibartarrek jasan behar dituzten itxarote- zerrendak hain luzeak izatea, gainera, horrek izan dezakeen arriskua kontuan izanda. Eta mesedez, ez dugu nahi, beste hiru urte igaro ondoren, egoera hain negargarria izatea.

**ELGOIBARKO ANBLATORIOKO GINEKOLOGIA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDU ESKASA DELA ETA KALTETUTAKO EMAKUMEAK:**
**N. L. A.**
**B. S. M.**
**BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUA**
**HAIZEA EMAKUME TALDEA**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]
barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.530 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## TXALOAK

• Eskerrak eman nahi ditut Bernardo Ezenarro kalean jartzen dituzten konoengatik: "Ez da irtenbiderik onena, baina bada zerbait. Oraindik ere, jendeak bigarren ilaran lagatzen du autoa Bernardo Ezenarro kalean, baina lehen baino askoz gutxiago. Jendea ez al da konturatzen nolako traba egiten duen autoa bigarren ilaran uzteak? harrigarria da. Ez dakit zein izan daitekeen behin betiko irtenbidea, baina momentuz konoek eman dute beren fruitua".



• Lola Sanchezek Herri Eskolako guztiei eskerrak eman nahi dizkie: "Orain dela hogeita lau urte, ilusioz beterik, Elgoibarko Herri Eskolara etorri nintzen. Urteetan zehar, makina bat gauza on eta ez hain on pasatu ditugu elkarrekin, zenbat ikasle, guraso eta lankide ezagutu ditudan eta nola ez, zenbat lan elkarrekin, beti bi helburu garbirekin: euskara maitatzea eta pertsonak hezitzea, beti elkarlanean ikasle, guraso eta lankide, familian bezala. Zorionez edo zoritxarrez, agur edo gero arte esateko eguna heldu zait, bai, jubilatuta nago. Hemendik guztioi, bihotz bihotzez eskerrak ematea nahi nuke, momentu hauetan nitaz gogoratu eta laguntzeagatik, ez dut inoiz ahaztuko eta Herri Eskola, beti bezala, nire eskola izango da. Mila esker.".

## KEXAK

• Bizikletaz ibiltzeko bide gorriak behar dira: "Elgoibarren ez dago bizikletaz ibiltzeko lekurik. Edozein tokitara joateko errepidera atera behar gara, eta arriskutsua da. Horregatik, herri barruan ibiltzen gara, eta jendeak errieta egiten digu, azkarregi ibiltzen garela esanez. Denon hoberako, bizikletaz ibiltzeko bide gorriak jartzea eskatzen dugu, San Lorentzora bidean adibidez. Bide hau egokia da bizikletarekin ibiltzeko eta ez genioke inori trabarik egingo".

• Aparkaleku gutxi daukagu herrian eta dauden apurrak kendu egiten dizkigute: "Plaza Txikia da herri barruan aparkatzeko daukagun toki bakarra eta bera ere, gehienetan beteta egoten da. Lurrazpiko zabor edukiontziak egiteko aparkaleku batzuk kendu egin zituzten, kamioiak eta langileek lekua behar zutelako. Denbora mordoa behar izan dute obra horiek bukatzeko, eta bukatu dutenean jendeak toki horretan ez aparkatzeko piboteak jarri dituzte. Nola da posible? lau edo bost autorentzako lekua dago hor eta inori ez dio trabarik egiten. Ulertezina da".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundia
DANOBAT
gizarte ekintza
Kondia
GOITI GRUPO DANOBAT
ESTARTA GRUPO DANOBAT



## URRUZUNOREN luma

### *Itzala*

Aspaldi ez dut ikusi nire itzala. Bere bila aritu naiz. Espaloian bilatu dut. Eskaileretan. Zuhaitz azpian ere begiratu dut, bada ez bada. Eskaparateetan arakatu dut, norbaitek lapurtu eta gero salgai jarriko zuelakoan. Ezer ere ez. Autoen azpiak miatu ditut. Farolen oinak. Estoldetan ere bilatu dut, ezkutaketetan jolasean, zirrikitu txikiren batean gorde ote den edo. Zakarrontzietan, karameluen plastikozko poltsetan, espaloian itsatsitako txikleen gainera erori eta bertan harrapatua geratu ote den ere begiratu dut. Plaza Handiko bankuan eserita dagoen gizonaren zapata azpian bilatu dut. Udaltzaingoan galdetu dut, baina erakutsi didaten kaxan betaurrekoak eta karterak soilik zeuden. Eta norbaitek galdutako lotsa. Beldurtzen hasi naiz, kezkatzen. Ez da inon ageri. Eta aurkitzen ez badut akabatuta nago. Arraro. Bakarrik. Moztuta. Erdibituta. Ez naiz nintzena. Itzalik gabe ez naiz osoa. Banoa ibaira, akaso olatu txikien gainean ibiliko da surf egiten. Baliteke etxean aurkitzea, galleten kaxan gordeta ditudan erretraturen batean seguru agertuko dela. Agertuko ahal da. Itzala halakoxea baita, berak nahi duenean bakarrik agertzen da.

***Jasone Osoro***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### MAITANE ARIZMENDIARRIETA

EROSKI BIDAIAK-EKOA

**Zein da udako oporretarako modako tokia?**
Kroazia mantentzen da eta Jamaika; Madriletik zuzeneko hegaldiak jarri baitituzte. Brasileko kostaldea eta Penintsulako edozein toki, bestela.

**Elgoibartarrak bidaiazaleak al gara?**
Denok gara bidaiazaleak, eta baita elgoibartarrak ere.

**Munduan zehar bidaiatuko bagenu, non egingo genuke topo uda honetan elgoibartarrekin?**
Kroazian, Kuban, Tailandian, Indian, Nepalen... eta Penintsulako edozein tokitan.

**Jendeak denboraz prestatzen al ditu udako oporrak?**
Ez, gehienak azken momentuan. Nora eta noiz bidaiatu behar dugun jakinez gero, 2 hilabete lehenago gauzak ixtea gomendatzen dugu. Batez ere hegaldien asuntoagatik.

**Azken orduko 'txolloak' topatzea posible al da?**
Egon badaude, edozein tokitara joateko prest bagaude.

**Egon zaren tokietatik nora itzuliko zinateke?**
Kroaziara: polita, jende jatorra eta gutxi esplotatua dago.

**Eta ezagutzea gustatuko litzaizukeen toki hori?**
Australia.

**Ezingo zenuke bidaiatu... gabe?**
Bikinia uda sasoian, eta gainerakoan argazki kamara gabe.

## komikia



## [AKORDATZEN NAIZ]



### MANOLO UNZILLA
1924an jaioa

# «Erromerixak»

Hemen "Acción Católica" eta bestia dala eta, beti "culo" eta beti "culo".

Azkoittixan, ez. Juaten ziñan emakumian billa, eta beti ez, beti "culo". (ipurdixa eman). Guk, gizonak, 16-17 urtekin, dantzara sartzeko jo bihar gendun lau edo bost txikito. Pixka bat argittu, eta orduantxe jun; bestela ez gendun borondaterik juteko, balorerik ez!

Gero, horixe eskatu bati eta ez, "no bailo": "Acción Católica" eta bestia dala eta, freno haundixa zaguan orduan. Bilddurra sartuta apaizekin. Eske, hemen apaizak sartu diguen bilddurra guri, bueno! Elizako asuntua gogorra zan lehenago; zakagun bilddur bat danok...

Oingua da gehixegixa, hori ere bai. Oin gaztiak ibiltzen dira, baiña geu ere ibilli gera. Fubolakin, batera eta bestera ibiltzen zera. Juaten zera Kordobara, Sevillara eta fubolian bazabiz, emakumia dakazu eskuan. Sevillan eta, Kordoban eta, erreztasun haundixa zaguan emakumiekin, aukera haundixak. Fubolistak aukeria zaken beti.

Frenua eukitzia gogorra zan. Lehen eziñ ezer egin, eta gero gehixegi. Hori zan hori! Lehenengotikan zailla zan hara jutia. Lehenengo egunian jun nitzanian, julixuan 18xan, 40-42 urtian. Ni Sevillara jun nitzanian, 27 urte. Lehenengo Logroñon egon nitzan hiru urtian; gero juan nitzan Kordobara, Irunera, Barakaldora, Jaenera eta, handik, Sevillara. Han hiru urte pasau eta gero, handik beste hiru urte Osasunara. Ibilli giñan jitanuan modura, etxerik etxe.



## [GURE BERBAK]

### *Kausazko egittura batzuk: zergatik*

Gaurkuan, kausazko esaldixak ekarriko dogu hona: gertakizunen baten arrazoia edo azalpena adierazteko balixo debenak dira. Hasteko, ZERGATIK eta ZE partikulak dittuenak jasoko dittugu. Euskal gramatikari garbizaliak txartzat ematen zittuen lehen halako egitturak, baiña, ikusiko dogun bezela, herrixak arazorik gabe darabiz, aspaldi samarretik, gaiñera. Hona adibide batzuk:

*1) Lehengo euskeria dagok oinguakin zihero diperentia, ero behintzat asko diperentziatzen dana, ze(rg)atik eze gaur dauden gauzak, asko entendiu etxaittugu egitten.*

*2) Esan tzidan eze "ez egik pauso bat gehixo eman, ze(rg)atik eze beheraño etorritta daguaz tankiak italianuak eta.*

*3) Guk es gendun lan asko egin basarrixan, ze(rg)atik hamairu urtekin tallarrera haste(n) zan.*

*4) - Dantzia behintzat gordetzen da. - Dantzia seguruago, zergatikan dantzia da betikua, ta gazterixiak antza erretz egitten deu.*

*5) - Andria nois esautu sendun eta... – Andria ezagutu? Handikan bastante denporarara izango zan, ze normalizauta zaguan egoeria.*

*6) Ba, derrior ezagutu bihar dok, ze Elgoibarren haura ezagutzen eztaban txakurrik eztagok eta.*

*7) Aber monagillo nahi naban bertan izatia, ze(rg)atik eze Bizentek laga egin bihar zabala.*

*Jesus Mari Makazaga*

LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

# MARI ARRILLAGA RAKETISTA IZANDAKOA

# «Gizonei jatekoa kentzen genielako itxi zituen Moscardo generalak emakumeentzako frontoiak»

*Mari Arrillaga Garate (Elgoibar, 1918) Ondarroan bizi bada ere, Idotorbe (San Pedro) bailarako Arane baserrian jaioa da, eta Arane I.a ezizena hartu zuen pilotari profesional moduan egin zituen urteetan. 17 urte besterilk ez zituela Bartzelonara joan zen raketista moduan jokatzera eta handik Espainia guztiko frontoiak ezagutu zituen gero, harik eta 1953. urtean, jokatzeari laga zion arte. Bere etxean hartu gaitu Marik eta duela 60 erabiltzen zituen raketak ere erakutsi dizkigu. Raketa eskuetan errebesez emateko keinua egiten duen bitartean beheko frontoira jaisteko gogoa ere agertu digu "begi bakarretik ondo ikusiko ez banu..." atera zaio barru-barrutik. Gustura ikusiko genuke nola astintzen duen pilota.*



**► Non ikasi zenuen pilotan jokatzen Mari?**

San Pedroko elizpean. Eskuz, palarekin... edozerekin jokatzen gendun. Handik, raketistak falta zirela entzun eta Kamiñeroko frontoira joaten hasi ginen neska mordoa, Txarriduna eta Sallobente bitartean. Eibartik gizon bi etortzen ziren guri erakustera eta guk ordaindu egiten genien erakustearren. Di-da batean moldatu ginen raketekin, sei hilabetean raketista egin ginen.

**► Eta handik profesionaletara egin zenuen salto, ezta?**

Bai, raketista batzuk Bartzelonara joaten hasi ginen. Gerra hasita zegoela, 1936. urtean, joan nintzen ni harantz, 18 urte bete gabe nituela oraindik. Nekez sartzen zian Bartzelonan eta jokatzen jarraitu genuen gerra denporetan ere. Hala ere, Palma de Mallorcatik etortzen ziren abioiak bondardatzera, zuloan sartu eta han egoten ginen pasatu artean.

**► Jende asko joaten al zen Bartzelonan emakumeak pilotan jokatzen ikustera?**

Bai. Bost frontoi zeuden Bartzelonan, eta jokatzen genuenean txiki geratzen ziren. Batzuk emakumeentzat ziren bakarrik, eta beste batzuk mistoak. Ezker paretik gabeko 'Nuevo Mundo' frontoian hasi nintzela akorduan daukat.





*Goian, Mariren gaztetako argazkia. Ondoko argazkian eskuinetik lehenengo da Mari.*

► **Ikusleek aposturik egiten al zuten?**

Gerra denborak izan arren, jendeak diru asko jokatzen zaban. Txakur lasterketak, oilarrak, zestalariak, raketistak... Bartzelona joko hutsa zen. Pentsa; domeka goizetan ez genuen jokatzen frontoian oilar jokoak antolatzen zituztela-eta, sekula halakorik! Gehienetan kiniela modukoa jokatzen genuen; neska bakoitzak zenbaki bat zuen, elkarren aurka aritzen ginen eta irabazleek aurrera egiten zuten (Jai-alai edo Zestan erabiltzen den antzerako sistema). Hil bukaeran kiniela gehien irabazitako raketistak diru mordotxoa altxatzen zuen. Garaiko bulegari batek baino soldata hobea irabazten genuen.

► **Bizimodu ona zeneramaten.**

Ona zen, bai. Nekatu ere egiten ginen, hil batzutan 26 partida jokatu arazten baitziguten, eta hala eta guztiz, berriz jaioko banintz raketista izango nintzateke. Mundua ezagutu eta lagun asko egiteko aukera eman dit. Raketista izango ez banintz, nire adineko gainerako neskak moduan ezkondu eta bizimodu arruntagoa izango nukeen. Pilotak asko eman dit. Senarra zena ere, Joseba Gazagaetxebarria (g.b.) zestalari ondarruarra, Bartzelonako frontoi batean ezagutu nuen.

► **Nongoak zineten raketistok?**

Bartzelonara Euskal Herriko txoko askotatik joan ginen arren, madrildarrak, valentziarrak, sevillarrak eta katalanak ere mordoxka bat zeuden. Denera 80 bat raketista. Orain dela gutxira arte mantendu genuen urtean behin bildu eta bazkari bat egiteko ohitura; denok ez, baina asko batzen ginen. Azkenaldian notizia txarrak besterik ez genituen ekartzen, ordea; hori edo hura hil dela... azkenean bertan behera lagatzea erabaki genuen. Egun pozgarria behar zuena tristea bihurtu zen.

**[ «Tabako paketeetan gure kromoak banatzen zituzten» ]**

► **Raketistok ospe edo entzutea lortu zenutela jakin dot.**

Bai, horixe. Ez orain futbolisten modura, orduan ez baitzegoen telebistarik, baina frontoi inguruetan ezagunak ginen eta errespetatzen gintuzten. Tabako paketeen barruan gure kromoak banatzen zituzten, raketista bakoitzaren argazkiekin. Beste garai batzuk ziren. Bartzelonan 5-6 urte egin eta Valentzia, Castellon, Logroño, Madril eta Kanariar uharteetako frontoietatik ere pasa nintzen.

► **Nolakoak ziren erabiltzen zenituzten raketak?**

Ez pentsa orain moduan Taiwanen egindakoak zirenik, Mutrikun eginak daude, Zumalabenean. Ondo eginak egon ere, gaurdaino iraun baitute. Oraindik gordeta dauzkat (duela 60 urte erabiltzen zituen raketak erakutsi dizkigu). Egurrezkoak dira eta sarea bildotsaren hesteekin egina dago, nylon edo plastikorik ez zegoen orduan-eta. Pisutxoagoak dira, baina egungoak baino ere nahiago ditut. Pilotak larruzkoak ziren; gogorrak eta biziak. Frontisean jo eta errebotean bueltan etortzen zen atzera. Behin ahizpak jotako pilotak golpe ederra eman zidan kaskarrean. Raketista bat ere hil zen pilotak buruan emandako kolpearen ondorioz.

► **Noiz laga zenion pilotan profesionalki jokatzeari?**

1953an laga nion jokatzeari. Hara eta hona ibiltzeaz aspertuta, ezkonduta ere banegoen, alabatxoa eduki... nahikoa zela erabaki nuen. Moskardo generalak, gainera, emakumeentzako frontoiak itxi zituen. Gizonei jatekoa kentzen geniela, hura izan zen frontoiak ixteko erabili zuen arrazoia. Jatekoa denontzat zegoen, frontoi denak betetzen ziren-eta, baina emakumeek gizonek baino gehiago egitea... Debekuaren ostean, Mexikora joan ziren raketista asko, nire ahizpa gazteagoa, Arane II.a, tartean. Bertan ezkondu eta Mexikon bizi da egun.

## [ PROTAGONISTA ]



### Ion**Loiola**

Ion Loiola gaztea diakono izendatu zuten San Pedro Egunean, ekainaren 29an. Apaiz izateko jarraitu beharreko bidearen etapa bat gehiago da diakono egitea. Hauxe da Ion Loiolak aukeratu duen bidea, eta Joan Maria Uriarte Donostiako Gotzainak diakonotu zuen elgoibartarra Donostiako katedralean. Errenteriako Fatima eta Alberga parrokiek osatzen duten Pastoral Barrutian egingo du bere zerbitzua. Apaiz izateko bidean, datorren azaroaren 25ean emango du azken pausua Ion Loiola elgoibartarrak, orduan izendatuko baitute apaiz.

## [ NOTIZIA ]

# 30.000 euro gastatuko ditu Udalak frontoi atzeko obretan

Aste honetan bertan hasi dira Plaza Handiko frontoiaren atzeko aldeko obrak. Udalak 30.000 euro erabiliko ditu, eta helburu nagusia hormako harria kontserbatzea izango da. Horretarako, gaur egun Giza Eskubideen parkeko hormaren berezitasun handiena dena kendu egingo dute, hau da, horma guztia estaltzen duen huntza kenduko dute. Dirudienez, landare berde honen sustraiek kalte egiten diete hormari, harri barrura sartzen dira eta zenbait zatitan hormak egonkortasuna galdu du. Bestalde, harri bitarteko tarteak bete egingo dira horma idartzeko.



**Apaingarriak**

Frontoi atzeko horma indarberritzeaz aparte, xake tableroa dagoen inguruan ur putzu txiki bat jarriko dute apaingarri gisa, platanondo handia zegoen tokian, hain zuzen ere. Bukatzeko, Giza Eskubideen Enparatzan dauden loratEgiak itxi egingo dituzte.

## [ ZENBAKIA ]

**28**

Sortzen duten zaborra birziklatzeko programa batean parte hartzen ari dira Elgoibarko 28 enpresa. Gi`puzkoako Ganberak jarri du martxan proiektu hau, enpresetan birziklatzearen aldeko kontzientzia pizteko helburuarekin. Debabarreneko eskualdean 84 enpresa sartu dira proiektuan.

## [ ARGAZKIA ]



Herritar bat baino gehiago harrituta aurkitu dugu herriko errotondetako apaingarriekin. Bi olibondo jarri dituzte apaingarri modura, bata Osasun Zentro aurreko errotondan, eta bestea San Rokera bidean dagoen errotondan. Denetariko iritziak entzun dira: "Oso politak daude" esan digu batek, beste batzuentzat ordea, arriskutsua ere izan daiteke, "olibondoak olioa isuritzen du eta lurra oso labainkor jar daiteke", beste batzuen ustez, "Udalak beste gauza batzuetan gastatu beharko luke dirua". Sekula ez du denon gustura euria egiten!

# Iritzi kontrajarriak Sigmako azokaren inaugurazio egunean



Sigmako azokaren bigarren eguna izan zen atzo. Joan zen astean izan zen estreinaldia eta esan zigutenez, jende ugari hurbildu zen Sigmako azokara. Udaletxetik balorazio oso positiboa egin zuten ostegunetako azoka berriaren lehenengo egunean: "Erosle ugari ibili zen Sigmako azokaren inaugurazioan. Egunak erosle askoren bisita izan zuen, eta bertako gune guztia bete duten postuetan lasaitasunez egin ahal izan dituzte erosketak". Udaletik beraien poztasuna adierazi eta saltzaile eta erosleen jarrera positiboa azpimarratu zuten.

**Jende asko baina salmenta gutxi**

Azokako saltzaileak, ordea, ez zeuden oso gustura egunaren amaieran. Beraien hitzetan, alkateak bidalita EAJko jende asko gerturatu zen Sigmara, baina ez zeukaten erosteko asmorik: "Alkateak ondo eman dizkie bere alderdikideei aginduak, baina azokan erosi egin behar dela esatea ahaztu zaio". Raul Argaiz saltzailearen esanetan, "azokak herri erdian egon behar du, Sigmara ez da jendea etorriko eta azkenean, ostegunetako azoka desagertu egingo da, Datorren urteko hauteskundeetan jendeak hitz egitea espero dugu".

## 1936ko Estatu Kolpea gaitzesteko mozioa aurkeztu zuen EAJk Osoko Bilkuran

Gobernu Errepublikarraren aurkako Estatu Kolpe militarra gertatu zenetik 70 urte bete dira aurten. Hori dela-eta, EAJk mozio bat aurkeztu zuen Osoko Bilkuran. Gainontzeko alderdien aldeko botoekin eta PPren abstentzioarekin onartu egin zuten. Beraz, Elgoibarko Osoko bilkurak "duela 70 urte gertatutako Estatu Kolpea gaitzesten du, eta ideia politikoak defendatzeko helburua duen bortxakeri oro gaitzesten du, oroitzapen historikoaren berreskurapena eskatzen du, publikoki aitortzen du euren ideia demokratikoak defendatzearren zuzen-zuzenean ondorio negargarriak, ekonomikoak nahiz edonolakoak jasan behar izan zituztenen balioa eta samina, Frankismoaren biktima izan zirenek duten kalteordain moralerako eta ekonomikorako eskubidea aldarrikatzen du eta azkenik, herrien arteko laguntasunaren eta demokratikoki ideia politiko ezberdinen alde borrokatzen dutenen berradiskidetzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen du".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Alzheimer gaixoei laguntzeko ikastaroa

Durangoko Zabaltzen-Sartu Elkarteak antolatuta, Alzheimer gaixoei arreta berezia eskaintzeko ikastaroa izango da Elgoibarren irailaren 11tik aurrera. 284 orduko ikastaroa izango da, eta teoriaz aparte, zentru espezializatuetan praktikak egiteko aukera izango da. INEMek diruz lagundutako ikastaroa da. Interesatuek, dagokien INEM zentruetan eman beharko dute izena. Informazio gehiago 946200449 (Maria Gutierrez) telefonoan.

### Bizkaiko bira

Elgoibarko Jubilatuen Egoitzak Bizkaia aldera egingo du hurrengo irteera, datorren uztailaren 19an. Goizeko 8:30ean izango da irteera Plaza Handitik, eta Bizkaiko txoko desberdinak ezagutzen emango dute eguna. Interesatuek Jubilatuetan eman dezakete izena. Prezioa 25 eurokoa da, bazkaria barne.

### Mundialeko logotipoa

Konturatu al zarete Munduko futbol Txapelketako logoak eta Elgoibarko Kilometroetakoa oso antzekoak direla? Herritar batek bidali digu bitxikeria hau, eta asteburu honetan jokatuko denez finala, egokia iruditu zaigu bi logoak argitaratzea.






# GAZTIA NAIZ

## txApela bUruAN...



BERLIN - **ALEMANIA**

# Olatz Gonzalez

Mundua eta kultura desberdinak ezagutzea norberarentzat aberasgarria da. Gaur egun, zenbat eta hizkuntza gehiago hitz egin, orduan eta aberatsagoa zara. Olatz Fernandez Alemaniar filologia ikasketak egiten ari da, eta horretarako, bertako hizkuntza menperatzea ezinbestekoa da. Eta hizkuntza bat ikasteko modurik onena, hizkuntza hori hitz egiten den lurraldera joatea denez, Alemania aldera joan zen elgoibartar gazte hau. Gaurkoan bere bizipenak kontatu dizkigu.

**Zenbat denbora daramazu Berlinen?**
Duela 10 hilabete etorri nintzen Erasmus beka batekin, alemaniera ikasteko asmoz. Abuztuan itzuliko naiz Elgoibarrera.

**Zertan diharduzu Berlinen?**
Alemaniar filologia Lizentziaturako laugarren urtea egiten ari naiz eta bide batez, era guztietako eta leku desberdinetako jendea ezagutu eta gauza berriak ikasten ari naiz.

**Nolakoa da Berlin?**
Hiri bezala, oso handia da. Turismoa egitera joanez gero, aste osoa beharko litzateke hiri guztia goitik behera ondo ikusteko. Nire iritziz oso polita da, oso gustura sentitzen naiz bertan. Berlinek aukera handiak ematen ditu edozein motako ekintzak egiteko, eta baita norberaren gustoko giroan ibiltzeko.

**Nolakoa da bertako jendea?**
Alemanak hasieran pertsona hotzak direla dirudi, baina ezagutzen dituzunean oso jatorrak dira eta baita lagun onak ere. Berlin oso internazionala da eta leku guztietako jendea ikusi daiteke. Orokorrean oso toleranteak dira.

**Bisitan joanez gero, zer erakutsiko zeniguke?**
"Brandenburgoko atea" eta "Berlingo harresia". Museoak gustatuz gero, "Checkpoint Charlie" eta "Judutar" museoak. Auzo polit batzuk ere erakutsiko nizkizueke: "Kreuzberg", "Nikolaiviertel", "Prenzlauer Berg". Bestalde, "Charlottenburg"en Berlingo zona aberatsena eta "Potzdamer platz"en Berlingo zona modernoena, bertako edifizioak ikusgarriak dira. "Friedrischain" berriz Berlingo zona pobreena da. Egia esan leku interesgarri ugari aurkitu ditzakegu bertan.




merezi duzu

ARGENTINA taldean

Buenos Aires, El Calafate, Ushuaia, Valdes Penintsula, Iguazu...

EROSKI bidaiak — merezi duzu

Datak:
- Urriak 15etaik 31ra
- Azaroak 5etik 23ra
- Abenduak 26tik urtarrilak 9ra

Eskatu informazioa gure bulegoan!

San Bartolome, 11 **ELGOIBAR** Tel. 943.74.46.56

# jakiTekO...

## Atzerrian ikasketak egiteko bekak



Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarriak diren gaietan espezializatzeko bekak dira. Programa honen helburua unibertsitateko goi-mailako tituludunei atzerrian, irakaskuntza arautu bitartez, gai interesgarrietan espezializazioa ahalbidetzea da. Programan parte hartu ahal izateko, EAEn gutxienez 2005eko urtarrilaren 1etik erroldatuta egon behar da. Bestalde, Lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua edukitzea eta ikasketak 2002ko ekainean edo geroago amaituta izatea ezinbestekoa da. Honekin batera, Ikasketen batez besteko nota hartuko da kontuan. Interesatuek, uztailaren 9ra arte dute izena emateko epea. Informazio gehiago 943 022850 telefonoan lortu daiteke.

## Andoaingo ikastetxe baterako irakasleen lan poltsa

Andoaingo La Salle Berrozpe Ikastetxerako irakasleen lan poltsa ireki dute. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Irakasle titulua edukitzea, Euskal Filologian Lizentziatua izatea, E.G.A. edo euskarako PL2 tituluaren jabe izatea eta ingelesa jakitea baloratuko dira. Interesdunak bere curriculuma ondorengo helbidera bidali beharko du: Posta Kutxatila 41, 20140 Andoain edo eta lbsandoain@lasalleberrozpe.com helbide elektronikora. Informazio gehiago 943 590557 telefonoan.

## Kirol argazkilaritzari buruzko I. lehiaketa




Elgoibarko Udalak eta Ongarri taldeak Kirol argazkilaritzari buruzko lehiaketa antolatu dute. Kirol-jardueraren bat erakusten duen edozein irudi aurkeztu ahal izango da lehiaketa honetan. Argazki guztiak paperezko formatoan aurkeztu behar dira, txuri beltzean nahiz koloretan. Edozein teknika onartuko da. Argazkiak entregatzeko azken eguna uztailaren 21a izango da. Informazio gehiago http://www.elgoibar.org helbidean edo 943 744415 telefonoan.



Bi aste daramatza ostegunetako azokak Sigman.

# Joango al zara Sigmako azokara erosketak egitera?

**SUSANA SAEZ**
Etxekoandrea
40 urte



“Bai. Lehengo astean izan nintzen eta autoa aparkatzeko primeran dago, herrian baino askoz hobeto. Ni asko ibiltzen naiz autoan eta herrian ezin da aparkatu.”

**MERTXE ONDARZA**
Etxekoandrea
57 urte



“Ez daukat azokara joateko ohiturarik, baina zerbait erosteko beharra baldin badaukat joango naiz. Plaza Txikian eskura geratzen zen, Sigmara joan egin behar da.”

**NEMESIA ANGULO**
Etxekoandrea
50 urte



“Bai, denbora daukadanean joango naiz. Plazan beti ematen nuen bueltatxo bat. Azoka Sigmara eramatea erabaki dute eta ez daukagu beste erremediorik.”

**Mª BEGOÑA ALONSO**
Etxekoandrea
54 urte



“Ez, Sigma oso urruti gelditzen da. Azokak herri erdian egon behar du, denon eskura. Denbora gutxirekin ateratzen naiz eta ez daukat Sigmaraino joateko astirik”

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 670

Lanbroa


Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera
Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

## JAIOTAKOAK



**Ariane Vicente Rey**
[ Ekainak 31 ]
Angel eta Paula



**June Arregi Barandiaran**
[ Ekainak 1 ]
Lutxi eta Maite



**Oier Jimenez Hernandez**
[ Ekainak 13 ]
Jose Ramon eta Maria Pilar



**Nerea Iriondo Arizmendi**
[ Ekainak 14 ]
Javier Maria eta Mirari

## HILDAKOAK

Vicenta Igartua • [ 85 urte ] • Ekainak 8
Manuela Zubizarreta • [ 95 urte ] • Ekainak 11
Jose Maria Armendariz • [ 74 urte ] • Ekainak 12
Constancio Alonso • [ 87 urte ] • Ekainak 15
Adoracion Martin • [ 83 urte ] • Ekainak 17
Josefa Bernedo • [ 87 urte ] • Ekainak 18
Jose Agote • [ 84 urte ] • Ekainak 30

## EZKONTZAK

**Ion Lopez de Sabando** eta **Concepcion Ballesteros** [ Ekainak 10 ]
**Eulogio Fuentes** eta **Vanesa Garcia** [ Ekainak 17 ]
**Ignacio Agirre** eta **Ikuska Barua** [ Ekainak 24 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.


# ETXEBERRIA

**Hileta zerbitzua**
OSOA eta 24 ORDUKOA

*TANATORIOA*



*KUTXAK*
*TRASLADOAK*
*KOROAK*

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

## [ IKAS KONTUAK ]

### San Fermin Txiki

Atxutxiamaika Aisialdi Taldearen eskutik, San Fermin Txiki eguna ospatu dute gaur goizean. Iruñeko entzierrora joateko moduan jantzita atera dira gaur goizean etxeko txikienak kalera, zezen beltzen aurrean korrika egiteko prest. Egunkaria eskuan zutela abestu diote San Fermini, eta txapligoaren ostean zezenak atera dira. San Bartolome eta Errosario kalean korrika egin ondoren, zezentxo eta poniak izan dira. Gaur goizean Iruñaren antz handia izan du Elgoibarrek.



# IMHko 85 ikaslek jaso dute Heziketa Zikloen amaierako diploma

IMHko Heziketa Zikloetan matrikulatutako 85 ikaslek jaso zuten ikasturte amaierako diploma joan zen ostiralerko ekitaldian. Iñaki Mujika; Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordea, Migel Anjel Mujika; Elgoibarko alkate ordea, Xabier Ortueta; AFMko zuzendaria, Markel Irizar Euskalteleko txirrindurali profesionala eta IMHko ikasle ohia, eta Jon Oregi, IMHko ikasle ohia eta Talleres Aibeko Kalitate arduradunak hartu zuten parte diploma banaketa ekitaldian. Lanbide Heziketa zikloen garrantzia aipatu zuten denek, eta Migel Anjel Mujikak Elgoibarko eta inguruko enpresetan lan egitera animatu zituen



ikasleak: "enpresak langile beharrean daude, bereziki fabrikazio mekanikoan. Gainera, jende asko jubilatzeko dago eta erreleboaren beharra dago".

## 4 ohorezko matrikula BH institutuan



Joan zen ostiralean egin zuten Batxilergoko diploma banaketa ekitaldia Herriko Antzokian. Aurtengoan, BH Institutuko 4 ikaslek jaso dute ohorezko matrikula: Maialen Olazabal, Laura Vegas, Alazne Ruiz de Escudero eta Josune Zubikarai izan dira batez besteko nota 9tik gora izan dutenak. Aipatu, bestalde, aurkeztutako ikasle guztiek gainditu dutelea Selektibitatea, eta EGA azterketa, ikasleen %65ak gainditu duela.









KOMIKI LEHIAKETA

# Kokoek XI. Komiki Lehiaketa antolatu du

Elgoibarko Kokoe Komiki Ekarteak XI. Komiki Lehiaketa jarri du martxan. Azken urteotan bezalaxe, nahi duten guztiek hartu dezakete parte, banaka edo taldeka. Gaia librea izango da, baina pertsonaiak eta istorioak orijinalak eta inoiz argitaratu gabeak izan behar dira. Era berean, norberak aukeratu dezake komikia egiteko teknika, baina lan orijinala aurkeztu beharko da, fotokopiak ez du balio. Bestalde, lana ordenagailuz egiten bada paperean inprimatuta aurkeztu beharko da, dagokion euskarri digitalarekin.

Lanak 18x24 zentimetroko tamainan edo proportzionalean aurkeztu behar dira, 4 orrialdeko luzeran, euskaraz nahiz gaztelaniako lanak onartuko dira. Urriaren 11n bukatuko da lanak aurkezteko epea, eta urriaren 20an egingo da sari banaketa. Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo da Kultur etxean.

.

**1.200 euro saritan**

Kokoek 1.200 euro banatuko ditu saritan. 500 euro irabazlearentzat, 300 euro bigarrenarentzat eta 200 euro hirugarrenarentzat. Euskarazko lanik onenak 120 euro jasoko ditu. Interesatuek www.kokoe.org webgunean aurkitu dezakete informazio gehiago.



## Aizarnazabalgo Etxabek irabazi zituen San Pedroko Idi-Demak



Herri kirolak eta idi-demak eman zioten amaiera San Pedro auzoko jaiei joan zen domekan. Goenatxo aita-semeak izan ziren harrijasotzen. Idi probetan, Aizarnazabalgo Etxabe izan zen irabazlea, 49 plaza, 2 metro eta 60 zentimetrorekin. Bigaren postuan Eibarko Agarre-Azpikua sailkatu zen 48 plazarekin eta Usurbilgo Bizkarre izan zen hirugarrena 42 plazarekin. Urtero bezala, auzotar asko hurbildu zen euren patroia omentzera. Zapatuan, motorrak izan ziren protagonista Manu Alvarezen omenezko motokros saioan, eta gauean bertso afaria Lizaso eta Peñagarikanorekin. Giro bikaina izan da aurtengo jaietan ere.

### San Bartolome jaietako kartel lehiaketa

Udaleko Kultura Batzordeak, San Bartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 7a izango da. Teknika librea erabili daiteke, baina ezinbestekoa da "Elgoibar, San Bartolome jaiak 2006" testua agertzea. Irabazleak 500 euro jasoko ditu, eta sari berezia 250 eurokoa izango da. Informazio gehiago 943-74 21 58 telefonoan.

### San Ferminak

Udaleko Kultura Sailak San Ferminetako entzierroak eskainiko ditu pantaila handian. Uztailaren 14ra arte Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan eskainiko dira, goizeko 8:00etan.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak kudeatzen duen

**EUSKARA ERREFORTZUETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA**

**Bete beharreko ezaugarriak:**
- 18 urte edo gehiago izatea, eta Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Euskara maila ona eta komunikaziorako gaitasuna.

**Curriculumak eta informazioa:** 943 74 16 26 (Nerea) • E-posta: nerea.larra@elgoibarkoizarra.com
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

## KULTUR ETXEAN MUNDUKO DOINUAK

# MARIATXI ETA TANGOA

***Kultur Etxe ondotik pasa bazarete, sototik zetozen tango edo mariatxi doinuak entzungo zenituzten, ziurrenik. Mexikoko txandala soinean daramaten mexikarrak kalean ikustera ere ohitu gara azken asteotan. Badu azalpena: Mexikoko "Tenochtitlan Dantza Konpainia" eta "Esencia Argentina" folklore taldeetako kideak daude soinu hauen jatorrian. Eibarko Latin Colours enpresaren bitartez iritsi dira Elgoibarrera eta Espainia eta Frantzian zehar egingo duten 3 hilabeteko birak irauten duen bitartean herrian hartuko dute ostatu, eta Kultur Etxeko sotoa, berriz, entseguak egiteko erabiliko dute. Esencia Argentinako Leonardo Alonsorekin bere taldearen egunerokoaz jardun dugu.***

Leonardo Alonso "Esencia Argentina" taldeko musika-zuzendaria eta sortzailea da. Malevaje taldeko gitarjole ohia, "Lunfardo" Tango taldeko kide eta sortzailea ere bada. Argentinarra izan arren, Sopelan bizi da, baina "Esencia Argentina" osatzen duten gainerako 12 kideak Argentinatik etorri dira, taldearen izenak berak argitzen duen moduan "Argentinako folklorea eta sustraiak" zabaltzera. Denak dira Buenos Aires probintziakoak. Bost musikarik: bandoneoia, arpa indiarra, 2 gitarra eta baxuak, eta zortzi dantzarik osatzen dute taldea, Jorge Delfino izanik koreografia zuzendaria. Talentu handikoak eta gazteak, "batezbeste 20 urte" dituztela taldeko kideek azaldu digu Alonsok. Beharko dute gaztetasunaren indarra, datozen hiru hilabeteetan 30 ikuskizun inguru eskainiko baitituzte Euskal Herrian, Espainiako hainbat erkidegotan eta baita Frantzian ere.

"Argentinako musika tradizionala; folklorea eta Tangoa dira gure ikuskizunaren osagaiak. Malanbo dantzan, esaterako, zapatekin ateratako soinuak, perkusioa eta 'boleadorak' uztartzen ditugu. Boleadorak; Patagonia eta Panpako indigenek ehizarako erabiltzen zuten arma zen jatorrian, larru zati bati lotutako 3 harriz osatua. Gautxoek bereganatu eta moldatu egin zituzten gero. Elementu funtzional izatetik arte izatera pasa eta Gautxoen kultura edo folkloreko elementu bat gehiago dira orain, bereziki ikusgarriak, eta behar bezala dominatzeko trebetasun handia eskatzen dutenak" azaldu digu.

### Tangoaren jatorria

Argentinarren ikurra eta kultur ekarpen handienetakoa da Tangoa, baina beti ez ei da horrela izan: "Tangoa eta argentinar folklore tipikoa beti borrokan egon dira. Ez









dakit zein den arrazoi zehatza, baina Argentinako mugen barruan Tangoa folklorearen parte den edo ez eztabaida egon da betidanik. Gizarteko behe mailetan sortu zen tangoa, lapur eta gaizkile giroetan. Hau dela-eta, hasieretan, ez zen begi onez ikusten, eta galerazita ere bazegoen. Tangoak jo eta sortzeko, ordea, musikari klasiko baten heziketa beharrezkoa da, musika oso ondo irakurtzen jakin behar baita. Tangoen konposatzaileak kontserbatorioko maisu handiak izan arren, ezizenez izenpetzen zuten, inork ezagutu ez zitzan. Nazioartean, berriz, gure folklorearen aurpegia, enbaxadorea, izatera iritsi da Tangoa. Munduko berbarik ezagunenen zerrenda atera zutenean ere, 5 berbarik ezagunenen artean zegoen Tangoa, Coca-cola eta antzerako berbekin batera"

Euskaldunek Argentinako herri musika oso ondo ezagutzen dutela aitortu digu Alonsok, "harrituta nago zenbateraino dakizuen gure folklorearen berri. Tango guztietako letrak dakizki jendeak eta ezagunegiak ez direnak jotzeko ere eskatzen digute. Atahualpa Yupanqui eta Horacio Guaraniren errepertorioko abestiak, esaterako, oso ezagunak dira hemen". Euskal folklorea eta argentinarraren arteko loturaz ere berba egin digu, "Euskal kultura betidanik egon da Tangoan. Hor dugu Roberto 'Polaco' Goyeneche, tango abeslaririk ezagunenetarikoa. Ile horia eta luzea zuelako eta meharra zelako deitzen zioten "Polaco", garaiko etorkin poloniarren ohiko itxura baitzen. Argi dago, baina, jatorri euskaldunekoa zela. Tangoari buruz idatzi zuen kazetaririk ezagunena ere euskal jatorrikoa zen".

### Turismo piska bat egiteko astirik gabe

Ikuskizun eta entsaioek Elgoibar eta Euskal Herriko bazterrak behar bezala ikusteko astirik ez diela laga aipatu digute dantzari eta musikari argentinarrek, "denbora gutxi daramagu hemen, baina gustatuko litzaiguke turismo piska bat egitea lanak lagatzen digun tarte apurretan". Momentuz, mendiak eta itsasoaren kontrasteak, eta bata bestearengandik horren gertu egoteak deitu die atentzioa: "Panpako lautadatik gatozenez, mendiak, berdetasun hau, harrigarriak zaizkigu, ezohikoak". Jendea euskaraz berba egiten entzuteak ere asko harritu dituela aitortu digute. Elgoibar deskribatzeko, berriz, 'pintoresko' hitza erabili dute: "Europako herrien egitura jarraitzen dute zuen herriek: Plaza nagusia, eliza eta eraikin garrantzitsuenak inguruan, kaleak... oso pintoreskoa da dena. Guk ez daukagu horrelakorik".

Bai argentinarrak eta bai mexikarrak irail bukaerara arte izango dira gure artean, eta baliteke Elgoibarren ere ikuskizunen bat eskaintzea.

ATLETISMOA

# Mintxetako antxintxikariak Torreauzoko Herri Krosean



Torreauzoko Herri Krosaren IX. edizioa jokatu zen joan zen domekan Oñatin. Bertan, Mintxeta Atletismo Taldeko 40 bat ordezkari inguruk parte hartu zuten, antxintxikari eta hauen gurasoak batuz gero. Parte hartu bakarrik ez, Angel Mari Lopez, Maria Hernandez, Ibon Belaustegi, Nora Santiago eta Leire Basterretxeak beren mailako lasterketak irabaztea lortu baitzuten.

Lasterketa honekin kros denboraldia amaitutzat emango dute Mintxeta kideek. Aurtengoa urte oparoa izan da, lasterketa mordo irabazi baitituzte.

### Futbol 7 Txapelketa azken txanpan sartu da

Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek elkarlanean antolatzen duten Bailarako Futbol 7 Txapelketa azken txanpan sartu da. Txapelketako 8 talderik onenek jarraitzen dute lehian, eta zapatu honetan jokatuko dituzte Kopa Faseko finalaurdenak, Mintxetan. "Jaika 5 Estrellas" taldeak "Mutrikuarrak" taldearen aurka jokatuko du 11:00etan. Ordu berean, baina zelaiaren beste erdian, "Tratadarancarlos" eta "Ladakh" taldeek jokatuko dute. 12:00etan, berriz, "Rompehuesos" - "Kashima" eta "Hyundai" - "Quiero un brugal" izango dira partidak. Finalaurrekoak uztailaren 12an jokatuko dira Unben (Eibar).

## Santi Maiztegik 3. postua lortu du Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketan



*Eskuinetik hasita lehenengoa da Santi Maiztegi.*

Santi Maiztegi elgoibartarra bigarren postutik 21 ehuneneko eskasera geratu zen Usurbilen jokatu zen Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketan. Debako Ekaitz Arkoagak jantzi zuen txapela 7´10´-ko denborarekin eta Gazteluko Jon Goikoetxea sailkatu zen bigarren postuan 7´20´´,34-ko denborarekin. Maiztegik, esan bezala, bigarren sailkatuak baino 21 ehuneko gehiago behar izan zituen lokotx guztiak otarrean sartzeko. Emoziorik ez zen falta izan, alajaina!




MIKAVOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

Malape taberna



Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

MOTOKROSA

# 101 motorzalek parte hartu zuten Manu Alvarezen Omenezko Motokros proban



Gidari gipuzkoarrak nabarmendu ziren Manu Alvarezen Omenezko III. Motokros proban. Euskadiko Motokros Txapelketarako puntuagarria zen Idotorben, San Pedro jaien barruan, jokatu zen proba, eta 101 gidarik parte hartu zuten 5 kategoriatan banatuta. Iker Lujanbio gipuzkoarrak irabazi zuen MX-2 kategoriako lasterketa Yamaha 250 bat gidatuz. Rogers Carrasco (Yamaha 450) gipuzkoarrak MX-1 kategoriako lasterketa irabazi zuen eta Josu Agirrebengoa izan zen beteranorik bizkorrena.

Gaztetxoei dagokionez, Iker Larrañaga arabarrak jantzi zuen txapela alebin mailan eta Adrian Villaverdek kadete mailan. Bero sargoria egiten zuen arren, zirkuituaren itzalguneetan ikusle mordoa batu ziren motorzaleen derrape eta jauzi ikusgarriak gertutik ikusteko.

## Atxotegi eta Arrizabalaga Debarroko Txapelketaren finalean



Lagunak Pilota Eskolako jubenil mailako bikoteak; Atxotegi aurrelari plaentxiarrak, eta Arrizabalaga atzelari elgoibartarrak, Debarroko Pilota Txapelketako finalera iristea lortu du. Finalaurreko kanporaketan Eibarko bikotea, Lezaun eta Sarasua, kanporatu ostean, domeka honetan, hilaren 9an, jokatuko dute finala Aretxabaletan. Kadeteak (Lizarralde eta Salegi) eta Nagusiak (Ulazia eta Loiola) ere finalaurrekoetaraino iritsi ziren, baina ezin izan zituzten Eskoriatza eta Aretxabaletako pilotariak mendean hartu. Bestalde, Sigmako Pilota Txapelketak ere aurrera darrai eta uztailaren 12an (eguaztena) eta 14an (barixakua) jokatuko dira finalaurrekoak 19:00etatik aurrera. Finalak uztailaren 25ean jokatuko dira, 11:00etatik aurrera.

## [ AGENDA ]

**ESKU PILOTA** Sigmako frontoian

Sigmako Pilota Txapelketa

Eguaztena, 12

19:00 Finalaurrekoak

Barixakua, 14

19:00 Finalaurrekoak

**FUTBOL 7 TXAPELKETA** Mintxetan

Zapatua, 8

11:00 Rte. Jaika 5 Estrellas – Mutrikuarrak

11:00 Tratadarancarlos – Ladakh

12:00 Rompehuesos – Kashima

12:00 Hyundai – Quiero un rrugal

## Igor Txurruka txapeldunorde Gipuzkoako Pilota Txapelketan



Igor Txurruka, 11 urteko pilotari gaztetxoak eskolarteko Gipuzkoako Esku Pilota Txapelketaren finalera iristea lortu zuen benjamin kategorian. Julen Berasategi azkoitiarrarekin osatzen du bikotea Txurrukak, Azkoitiko Anaitasuna Pilota Taldean jokatzen baitu. Finalaurdenetan Urnietako taldea kanporatu ostean finalerdietako partida 16 eta 6 irabazi zuten Lazkaoren aurka. Zoritxarrez, finaleko egunak Port Aventurara egin zuten ikas bidaiarekin bat egiten zuen eta Txurrukak ezin izan zuenez joan, txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan dute.

## [ ETXEBIZITZAK ]

SALMENTA

- Pisua salgai Urasandin. Duplex-a. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua, guztiz berritua. 100m². 653 715141

**ETXEA SALGAI MENDARON**
Mendarozabal Auzoan. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Dena kanpoaldera.
943 03 38 44
686 62 21 92

ALOKAIRUA

- Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Erdialdean, hondartzatik 600 metrora. Igerilekuarekin. 628 58 45 35
- Pisua alokatzen dut Torreviejan, hondartzatik 200 metrora. Uztaila, abuztua eta iraila. 615 707 138
- Pisua hartuko nuke alokairuan. 645 499 105
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 626 91 49 04
- Logela bat alokatzen da. 635 20 64 36
- Etxea hartuko genuke alokairuan Ibiza edo Mallorkan, uztaila eta abuztuan. 620 049420
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 696023933

## [ AUTOAK ]

- Citroen C3 SX plus autoa salgai. 1.4cc, 75 zaldi. 31.510km. 2003ko urrikoa. Citroen garantia 2006ko urrira arte. C.C, E.E, A.A, C.D. 630288332/626574486
- Seat Ibiza 1.9 autoa salgai. 3 ate, zuria. 75 zaldi. 95ekoa. Merke. 943531597/679503380 (Aitor)
- Peugeot 3009 diesel autoa salgai. Merke. 639 57 25 32
- Hyundai coupe autoa salgai. Gorria. 10 urte. Egoera oso onean, beti garajean. 850.000pta. 678 438 202
- Opel Tigra autoa salgai. 1.4, 16v. Aire egokitua, beira igogailu elektrikoa, isteko sistema zentralizatua. 2.000 euro. 652 817 897
- Honda Sky ziklomotorra salgai. 536km. 570 euro. 627432361
- Ford Focus 1.8 TDDI 90v. autoa salgai. 2002koa. 49.000km. Irratia, 4CD, airbag, aire girotua, atzeko beirak tindatuak, direkzio lagundua. 649099593

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Garajea alokatu edo saltzen da Leku Ederren, 4. pisuan. 696 977 528 (Asteburuetan edo gauez deitu)
- Garaje bikoitza salgai Urasandin, bi autorentzako. 30m² 653 715141
- Garaje itxia alokatzen dut San Roken. Telefonica inguruan. 600 64 84 74

## [ BESTELAKOAK ]

- Karabana salgai Bañares kanpingean, Santo Domingo de La Calzadan. (Errioxa). 5 lagunentzako. 4.500 euro. Negoziatzeko aukera. 943 74 41 27
- Kiromasajerako kamilla tolesgarria erosiko nuke. 678 438 202 (Lurdes)
- Look K6 131 bizikleta salgai. Karbonozko kuadroa, Colnago L-40 urkila, ITM eskulekua, Mavic Helium gurpilak. 1.000 euro. 652 817 897
- Piragua salgai. Apurtezina. Prezio onean. 650 586144
- Ospitaleko ohea salgai. Motorrarekin. 627432361

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 € . Autoak 8 € . Eta bestelakoak 5 € . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

ESKAERA

- Neska gaztea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan... 609965932 (Blanca)
- Emakumea pertsona nagusia edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo kamarera moduan lan egiteko prest. 943 530803/676623843 (Jakeline)
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Gauez edo egunez. Euskalduna, esperientziaduna. 943 74 44 33
- 42 urteko emakumea lanerako prest: Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin... interna moduan. 676 190 781
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Oso arduratsua. 659813248/943033601
- Gizonezkoa lanerako prest: Mekaniko, eraikuntza, edo beste edozein lan egiteko prest. 664 57 66 97
- Emakuea lanerako prest: nagusiak edo umeak zindu, garbiketa lanak... 664 57 66 97
- Pertsona bat eskaintzen da garbiketak lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 626 91 49 04
- Neska gaztea eskaintzen da udan umeak edo nagusiak zaintzeko. Astean zehar. 659 98 08 91/943 743433
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak, elkarteak... Arratsaldez. 639 882 004
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Interna. 610 91 33 40
- Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest. 686 23 47 86
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak... 667 709 439
- Bi gizonezko eta emakume bat lanerako prest. 626462140
- Uztailean goizez Lehen Hezkuntza 1etik 6rako eta DBH 1 eta 2. mailako klase partikularrak ematen ditut. 943742855
- Udan klase partikularrak ematen ditut. Lehen eta Bigarren Hezkuntza. 943531054
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu... 699 60 91 90

ESKAINTZA

- Kamarera behar da. 943 25 43 66
- Erizaina behar da uztailaren 24tik irailaren 3ra arte San Lazaro Egoitzan. 943 466150 (Maider) edo 609318192 (Manoli)
- Elgoibarko arozteguiak euskaraz dakien mutila behar du. 943 74 31 16
- Kamarereoa behar da. Gizarte Segurantza. 615 72 34 80
- Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko. 943 74 14 61

## ABISUAK

- Uztailaren 2an Aterpe taberna inguruan zilar koloreko bi gurpildun patinetea kendu zidaten. Udaltzaingora eraman edo deitu. 696845061
- Emakumearen eskumuturreko erlojua topatu nuen Errosario kalean. Udaltzaingoan laga nuen.
- Karitasek kotxe kapota, kotxesilla, sehaska eta josteko makina behar ditu. 943 74 15 09

# [ZORIONAK]



Zorionak **Mikel**, 7 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Antonen partez.



Zorionak **Mikel** hilaren 10ean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Nerea, Borja eta Ignacioren partez.



Zorionak **Adrian** igandean 2 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa eguna.



Zorionak **Oier** gaur 7 urte egin dituzulako. Beste zazpirekin San Ferminetara! Enara eta Iratiren partez, ondo pasa!



Zorionak **Aroa!** Azkenean iritsi da eguna! bihar 6 urte. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Maialenen partez.



Zorionak **Gorka** bihar 2 urte egingo dituzulako. Nola pasatzen den denbora! Familiakoen eta bereziki, anaia Anderren partez.



Zorionak **Nerea** uztailaren 5ean 11 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Jurdana** hilaren 11n 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak gure etxeko gizontxoari, gaur 7 urte! Gora San Fermin! Etxekoen eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak **Asier** uztailaren 9an 9 urte egingo dituzulako. Egun ona pasa! familiakoen eta anaia Markosen partez.



Zorionak **Anton!** Jarraitu horrela, onena zara!



Zorionak **Juanjo** zure urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, alaba Ane eta Mariaren partez.



Zorionak **guapa!** Jadanik 11 urte! Oso ondo pasa zure egunean. Biurria koadrilaren partez.



Zorionak **Imanol** uztailaren 4an 11 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Helene** uztailaren 10ean 7 urte egingo dituzulako. Senide guztien partez. Ondo pasau!



Zorionak **Iñigo Mugerza** 7 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki Markel eta Oinatzen partez.



Zorionak **Ander eta Eneko** 7 eta 9 urte egin dituzuelako. Familiakoen partez.



Lau, lau, lau sardina bakalau! Zorionak etxeko guztion partez.

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



9 igandea EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 7 | Zabaleta |
| 8 | Yudego |
| 9 | Yudego |
| 10 | Ibañez |
| 11 | Bidasolo |
| 12 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 13 | Ibañez |
| 14 | Yudego |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |
| **UDALA** | |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |
| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |
| **IKASTETXEAK** | |
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA (UZTAILA)**
Astegunak:
7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45
Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR (UZTAILA)**
Astegunak:
7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 902 543 210***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 8 ZAPATUA ]

**08:00 SAN FERMINETAKO ENTZIERROAK ZUZENEAN**
Kultur Etxean
Ekainaren 14ra arte



## SINOPSIAK

**«Aupa Etxebeste»**



## [ 12 EGUENA ]

19:00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAURREKOAK
Sigmako frontoian

## [ 14 BARIXAKUA ]

19:00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAURREKOAK
Sigmako frontoian



## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** Plaza Handian

«Bajo Cero»
7 barixakua: 22:30
«Aupa Etxebeste» (euskaraz)
8, zapatua: 22:30
«Ice Age 2: El Deshielo»
14, barixakua: 22:30

**EIBAR,** UNZAGA
«Cars»
7, barixakua: 19:30-22:15
8, zapatua: 17:00-19:30-22:15
9, domekia: 17:00-19:30-22:15
10, astelehena: 19:30-22:15
11, martitzena: 19:30-22:15
12, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
«En Tierra de Hombres»
7, barixakua: 19:30
8, zapatua: 17:00-19:30-22:15
9, domekia: 17:00-19:30-22:15
10, astelehena: 19:30-22:15
11, martitzena: 19:30-22:15
12, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

### raz)

uzendaria: Asier Altuna & Telmo Esnal.
ntzezleak: Ramon Agirre, Elena Irureta, Iban Garate, aco Sagarzazu.
kebestetarrak, oporretan irten behar diren egun bean, diru gabe geratzen dira. Herrikoen aurrean itrak mantentzearren etxean gordeta pasako dituzte porrak. Itxurakeriak alde batera utzi eta, euren arte gezurrak eta miseriak elkarri aurpegiratu ondoren, zitzako oporrik onenak pasako dituzte. Filma hau an da aurten Herriko Antzokian bota dituzten guztatik ikusiena: 737 lagun joan ziren. Bere garaian usi ez bazenuten bigarren aukera duzue orain.

### «Bajo Cero»



Zuzendaria: Frank Marshall.
Antzezleak: Paul Walker, Bruce Greenwood.
Hego Poloan, Kontinente Antartikoan, lanean ari den zientzilari eta esploratzaile talde batek istripua izan eta ozta-ozta bizirik ateratzea lortuko du. Huskey arrazako 8 lera txakur ausart eta argiri esker lortuko dute ataka larritik ateratzea. Mendeko ekaitza datorrela-eta, kontinente izoztutik berehala atera beharrean aurkituko dira, ordea, txakurrak bertan lagaz. Erreskate operazioa arriskutsua izango da, baina animalien eta gizakien artean sortu den erlazioa ekaitz bortitz guztien gainetik dago.



**1961**. urteko erretratu zahar hau Australiatik iritsi zaigu. Bertan bizi den **Jose Urbieta** elgoibartarrak bidali digu. Esan digunez, Kalamuara bidean egindako geldiune batean ateratako argazkia da. Elgoibarren betidanik izan dugu mendirako joera, eta garai hartan ere, jende asko ibiltzen zen mendian. Argazkian ikusten den bezala, ez zeukaten gaur egungo ekipoen beharrik, zeuktaenarekin moldatzen ziren. Neska-mutil hauek egun politak pasatzen zituzten elkarrekin. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren elgoibartarrak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Jose Urbieta, Karlos Larrañaga ( ), Jesus Vallez (Mexikon bizi da), Clarita Murua, Maria Reyes Larrañaga eta Jose Maria Artieda.**

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Margarita Larrañaga eta Pako Lopez ( ).**



**ESKERTZA**

2006ko ekainaren 30ean hil zen
*Jose Agote Urain*en sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




ALTZOLA
• 3 logelako etxebizitzak terraza zabalekin.
• Duplex-ak.
• Toki lasai eta loretsua.
• Lehen urteko aseguru dohainik.
ERROSARIO KALEA
• Azken etxebizitzak.
• Abuzturako bizitzera sartzeko moduan.
• 1. urtean asegurua dohainik.
• 168.300 €-tik hasita.
ALBOKUAK INMOBILIARIA
Errosario, 12 - Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69 - E-posta: albokuak@euskalnet.net
IBAIHAUNDI PROMOZIOAK
kutxa


Eguneroko ezusteek
ez dezaten atzerapenik
ezta produktibotasun
galerarik sortu
informatika
informática
hirulan

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Proiektu eta erreformak

**Bigara Erreformak**
San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri Indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com